

1. BALIO ERANTSIA

Gaur egun, 1.140 milioi erretzaile daude gure gizartean eta zigarro bakoitzak zigarro mutur bat gure ekosisteman sartzea eragiten du. Hori dela eta, 680.388 tona zigarro mutur botatzen dira lurrrera urtean, gure ingurunea kutsatuz.

Mutur hauek 10 urte behar dituzte guztiz deskonposatzeko azkenean zigarroaren bizitzaren media 5 minutukoa da eta zigarroa erre eta gero muturraren funtzioa bukatu da bost minutuko plazer horrek ingurumenean eragiten duen kaltea konparatuz ez du konpentsatzen.



Material hauek ura eta lurra iragazten duten toxikoak dituzte; hala nola, etil-fenola, nikotina, murdruna, etab. Elementu toxiko hauek ingurugiroko bizidunei (gizakiei barne) izugarritzko kalteak eragiten dizkiete. Itsasoko animaliak izaten dira batez ere kaltetuak. Itsas txoriek eta dorodokek janaria bilatzen zigarro muturrak irensten dituzte, aipatutako elementu toxiko guztiak beraien organismora sartuz.



Horrez gain, MOE-en (Munduko Osasun Erakundea) arabera tabakismoak 8 milioi pertsona hiltzen ditu urtero munduan eta 600.000 pertsona hiltzen dira erretzaile pasiboak direla eta. Datu hauek aztertuta argi eta garbi ikusi dezakegu gaur egungo arazo larri bat dela.



**World Health
Organization**

Gure enpresaren helburu nagusia arazo hauei erantzuna ematea da. Momentuz ez dago gure esku jendeak erretzeari uztea, hainbat kanpaina egin izan diren arren, erretzaileen zifrak behera egiten ez baitu. Baina kale, itsaso eta basoak zigarro muturrez garbitzeko aukera interesgarria aurkitu dugu, gure ingurunea toxiko horietatik libratzeko asmoz. Horretarako zigarro muturrak gure inguruneke lekuetatik bilduko ditugu beste erabilpen bat emateko. Gure proiektuarekin mutur hauei beste bizitza bat emango diegu sudaderak eginez. Zigarro muturrak edukiontzien bidez eta lurreko bilketak eginez eskuratuko ditugu baina ekintza hauek aurrerago hobeto azaldu eta zehaztu ditugu. Prozesu kimiko baten bidez, zigarro muturretan dauden materialak banantzen dira eta horien zuntza erabiliko ditugu gure markako sudaderak egiteko, prozesu kimiko hori birziklapen enpresa bat egingo digu.



Ingurumena garbitzeaz gain, gure helburuetariko bat tabakismoari buruz jendea kontzientziatzea eta erretzaile kopurua murriztea da, horretarako aurrerago azalduko ditugun hainbat ekintza gauzatuko ditugu.

